

Arratsalde on guztioi:

Lehendabizi, eskerrak zuei, gaur, ageriko ekitaldi honetan, hizlari eta kantari gisa parte hartu duzuenoi.

Eskerrak, hasteko, Patxi Salaberriri, Nafarroa eta euskara erro-errotik loturik daudela erakutsi digulako. Euskaltzaindia Nafarroako erakundea da, eta Nafarroako euskal gizartearen partaide da.

Eskerrak, orobat, Patxi Zabaletari. Berak gogoratu digu mundu jakin batek, aurreko belaunaldi batek erakutsi ziguna, hain zuzen ere, euskaltzaletasuna. Egia da Jorge Cortes Izal zenaren bizi-zertzeladak entzutean, guztiok bat egiten dugula haren moduko ekintzaileen ahaleginekin. Bi hitzetan esateko, Jorge Cortes Izal, zalduna eta euskalduna.

Eskerrik asko, azkenik, Iñaki Etxezarretari eta ikastolei. Euskaltzaindiak bi sail ditu hasiera-hasieratik: Iker Saila eta Jagon Saila. Egun, Euskaltzaindia zeregin berrietan dabil murgilduta. Horiek ere badute euren esanahia Jagon jardunean. Bateko, euskalgintzaren erakundeekin batera lan egitea, adibidez, ikastolekin eta besteko, esan beharrik ez dago, euskalduntasunari baliabide berriak ekartzea eta hauen artean, gure ezaupideak aberasten dituen argitalpen berriak, gaur aurkeztu dugunaren tankerakoak.

Euskalduntasunean iraun, belaunaldi berriei erakutsi, euskara nonahi erabili... gaur ere bizi-egitasmo baten arrazoiak dira. Nafarroa Oinezen leloa gogoratuz, euskara munduz mundu doa eta bidaiaria horretan Euskaltzaindiaren goiburua ere erabilgarria dela uste dut, ekin eta jarrai.

Hori gauzatzeko hemen gaituzue Euskaltzaindia eta ikastolak. Nafarroa Oinez da esandakoaren agerbidea. Baina hor ez da agortzen kontua, kontu horrek eskatzen digulako guztioi datozen urteetan ere

ekinean jarraitzea, emaitza onuragarriak eta aberasgarriak ekarriz euskalgintzari.

Horren harira ere, eta euskararen bizitzan bidaide garelako, Euskaltzaindiak Paz de Ziganda ikastolari ematen dizkio bere lan batzuk eta, batez ere, bere argitalpen katalogoa, bertan titulu interesgarriak aurkituko dituelakoan ikastolaren bibliotekarako.

Bukatzeko, eskerrak Paz de Ziganda ikastolako arduradun, irakasle, ikasle, guraso eta langileei, harrera ezin hobea eskaini digutelako eta zuei ere bai, eskerrak, zuen harreragatik eta hona hurreratzearren, eta gurekin batera, ageriko ekitaldi honetan parte hartzearren.

Goazen aurrera!

Andres Urrutia, euskaltzainburua